

**Lehenengo Murrizketa.- Kirol-probak, txirrindularien lasterketak eta bestelako gertakariak**

Azaroaren 21ean 1.428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorreko 55. artikulua eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren II. eranskinak xedatzen duenaren arabera, Trafikoko Lurralde Zerbitzuetako arduradunek ez dute inolako kirol-probarik baimenduko (norgehiagokakoa izan ala ez izan) ezta horien aldeko iritzirik emango ere, baldin eta kirol-proba horiek ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako egunetan eta orduetan egitekoak badira, eta horiek egiteko herri barruko galtzadak eta bazterbideak bete behar badituzte.

Salbuespen gisa, baimendu ahal izango dira honako kirol-proba, bizikleta-martxa eta bestelako ekitaldi hauek:

- Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (TNB) edo nazioz gaindiko antzeko erakundeek antolatzen dituzten nazioarte mailakoak;
- bi baldintza hauek betetzen dituztenak: irteerako edo itzulerako operazioengatik ibilgailu-intentsitate handia duten bideei ez eragitea, eta probara bertaratzeko nahiko agente egotea.
- hauteskunde-prozesuekin bat datozenak, baldin eta bozkatzeko eskubidea bermatzen bada hauteslekuetarako sarbidea erraztuz, eta probara bertaratzeko agente nahikoak badaude.

**I. ERANSKINA**

**KIROL PROBAK, TXIRRINDULARIEN LASTERKETAK ETA BESTELAKO GERTAKARIAK**

Hauteskunde-prozesuak, erreferendumak, plebiszituak edo bestelako edozein herri-kontsulta dauden egunetan, 00:00etatik 24:00etara, eta hurrengo egunetan:

<b>Eguna</b>	<b>Orduak</b>	<b>Lurraldeak</b>
Martxoak 27	15:00 - 24:00	EAE
Martxoak 28	00:00 - 24:00	EAE
Martxoak 29	00:00 - 24:00	Bizkaia
Apirilak 1	00:00 - 24:00	EAE
Apirilak 29	00:00 - 24:00	Araba
Maiatzak 1	00:00 - 24:00	EAE
Maiatzak 8	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 9	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzak 20	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Ekainak 28	15:00 - 24:00	EAE
Ekainak 29	00:00 - 15:00	EAE
Uztailak 25	00:00 - 24:00	EAE
Uztailak 31	15:00 - 24:00	Bizkaia Gipuzkoa
Abuztuak 15	00:00 - 24:00	EAE
Abuztuak 18	00:00 - 24:00	EAE
Irailak 1	00:00 - 24:00	EAE
Urriak 31	15:00 - 24:00	EAE
Azaroak 1	00:00 - 24:00	EAE
Azaroak 11	00:00 - 24:00	Gipuzkoa

Abenduak 5	15:00 - 24:00	EAE
Abenduak 6	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 8	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 24	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 25	00:00 - 24:00	EAE
Abenduak 31	00:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 1a	00:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 3a	15:00 - 24:00	EAE
2025ko urtarrilaren 6a	00:00 - 24:00	EAE